

Udal eta erakundei begirako aholkularitza

Eragileen sarea eta Hizkuntza-sozializazioan laguntzea

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik hainbat ikastaro, hitzaldi eta zerbitzu eskaintzen ditugu. Eskaintza zehatz horietaz gain Udal eta beste hainbat erakunderi aholkularitza eskaintzen diegu bi norabidetan:

- Eragileen sarea osatzea: haur eta nerabeen hizkuntza-sozializazioan eta euskararen erabileran lagundu dezaketen eragileak aktibatzea eta elkarlanean jartzera begirako aholkularitza.
- Hizkuntza-sozializazioan laguntzea: haur eta nerabeen hizkuntza-sozializazioan eragiten duten faktoreak kontuan hartuz, horretan laguntzera begira ikastetxe edo herrietara begirako programak diseinatzen eta aurrera eramaten laguntzea.

Ondorengo orrietan bi arlo horiei buruzko aurkezpen bat aurkituko duzue.

Eragileen sarea osatzera begirako aholkularitza

Lan handia egiten da haurren eta gazteen artean euskararen erabilera indartzeko eta hizkuntza-sozializazioan laguntzeko.

Hiru erakunderentzat lehentasunezko arloa da haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitea:

- Udaleko Euskara Zerbitzuarentzat
- Herriko ikastetxeentzat
- Euskara Elkartearentzat (hainbat herriren kasuan)

Hiru erakunde horien arteko elkarlana erdigunean jarrita, haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragile zuzenak diren guneetan lan egitea izan daiteke aurrera begira norabide eraginkor bat:

- Gurasoak
- Irakasleak
- Eskola ordutik kanpoko jardueretako hezitzaileak
- Gazteak

HERRIA

IKASTETXEA

Gurasoak

Gurasoengan eragin

- Udalaren transmisio plana
- Ikastetxeetako transmisio planak

Gurasoak eragile

- Ikastetxeetako Gurasoen Euskara Batzordeak edo Herri Mailako Gurasoen Euskara Batzordea

Irakasleak

Irakasleak eragile

- Ikasleen erabileran eragiteko plangintzak
- Ikasleen jarreretan eragiteko plangintzak

Hezitzaileak

Hezitzaileak eragile

- Herriko (eta horren barruan baita ikastetxeetako) eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileen formazioa eta jarraipena

Gazteak

Gazteengan eragiten

- Sentiberatze tailerrak gazteekin
- Irakasleen bidez eragiteko plangintzak (*irakasleak eragile puntua*)

Gazteak eragile

- Ikasleen euskara batzordeak: ikastetxe barruan + herrira begira

Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan zuzeneko eragina dute gurasoek, irakasleek, eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileek eta, noski, gazteek beraiek.

Gurasoak: Gurasoen jokabideek eragin zuzena dute haurren eta gazteen euskararekiko jarreretan eta jokabideetan. Gurasoek euskara transmititzea nahi da (euskaldunen kasuan), edo eta haien ondorengoetarako euskara aukera dezatela (erdaldunen kasuan). Baina, horretaz gain, seme-alabentzat eredu izan daitezen eta jarrera eta jokabideetan eragin dezaten bideak landu nahi dira.

Hainbat Udalek aspaldi dituzte familia transmisioko programak martxan (euskara ikasteko taldeak, euskarazko produktuen katalogoa, gurasoak eredu izatera begirako kanpainak, gurasoentzat gidak...). Bide egokia den arren, arlo honetan bide berriak garatu daitezke: gurasoak famili transmisio programen hartzaile izatetik eragile izan daitezen lortu behar da. Hau da, bi bideak uztartu behar dira: gurasoengan eragiten ahalegintzea garrantzitsua da baina gurasoak eragile izatea eraginkorragoa eta aberatsagoa da.

Nola egin?

- Udalek transmisio programekin jarraitzea egokia eta beharrezkoa da
- Irakasleen bidez gurasoengan eragiteko plangintzak landu daitezke (hainbat ikastetxetan jarri dira abian modu horretako planak).
- Gurasoen Batzordeak antolatuz eta bideratuz, gurasoak eragile aktiboak izan daitezken.

Irakasleak: Ikastetxeek eta irakasleek lan oso ona egin dute hainbat urtetan eta horretan jarraitzen dute. Baina irakasleak eragile izatera begira bideak garatu eta indartu daitezke, eta noski, oinarrizko esparrua da haur eta gazteen euskararen ezagutzan, erabileran eta jarreretan eragitera begira.

Nola egin? Ikasleen euskararen erabileran eragiteko estrategiak garatuz eta jarreretan eragiteko proiektuak landuz.

Eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileak: Eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzea eta jarduera horietan euskararen erabilera sustatzea lehentasunezko arlo bat da. Lehendik ere garrantzia onartzen zitzaien arren, azken ikerketen arabera haurren eta gazteen euskararen erabileran aurrera egin nahi bada ezinbestean landu beharreko arloa dela ikusten da (Arrue ikerketa).

Nola egin? Hitzarmengintzako proiektuak lantzea izan daiteke bide eraginkorrena. Horretarako, oinarri moduan Elkartetan eragiten hitzarmengintzaren bidez gida hartu daiteke oinarri moduan (Topagunean Euskara Elkarten Federazioak argitaratua).

Gazteak: Haur eta gazteen euskararen erabileran eta jarretan eragiterakoan, gazteak hartzaile izatetik eragile izatera pasatzea estrategikoa da. Eragile izan daitezke gazteen artean euskara gehiago erabiltzera begira baina eragile izan daitezke ikastetxean eta herrian (gazteagoentzat erreferente bihurtuz eta oro har erabilera indartzeko jardueretan parte hartuz).

Nola egin?

- Jarreretan irakasleen bidez eragiteko proiektuak landu daitezke.
- Ikastetxeetan ikasleen euskara batzordeak sortu eta bideratu daitezke, gazteak beraiek eragile izan daitezen.

Norabide honetan Udalak eta ikastetxeak elkarlanean aritzea beharrezkoa da, eta Euskara Elkarteak ere parte hartu dezakeenean eragile horren inplikazioa lortzea ere garrantzitsua da.

Aholkularitza eskaintza *Eragileen sarea osatzera begira*

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik *Eragileen sarea osatzen* deituriko norabide honetan urratsak emateko aholkularitza eskaintzen dugu. Toki bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuz, eta aurrera begira zein aukera egin daitezkeen aztertuta, lehentasunak jartzen laguntzen dugu, eragileak aktibatzeke eta dinamizatzeke aholkularitza eskaintzen dugu.

Interesa duten udal, ikastetxe eta erakundeekin gaia aztertu ondoren proposamen egokituak prestatzen ditugu.

Hizkuntza-sozializazioan laguntzera begirako aholkularitza

EAEko haur eta nerabe gehien-gehienek, eta Nafarroa eta Iparraldeko hainbatek, gutxienez hiru hizkuntza ikasten dituzte: euskara, gaztelania/frantzesara eta ingelesa. Beraz, salbuespen batzuk kenduta, guztiek ulertzen dute euskara eta euskararen erabilera oso handia izan daiteke beraien artean.

Baina, hizkuntza-ohituretan hainbat faktorek eragiten dute. Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako ikerketa batean hamabi faktore ezberdin agertzen dira (*Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak, Soziolinguistika Klusterra, 2011*):

| Gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreak |
|---|
| Lehen-hizkuntza: etxetik euskara jasotzea. |
| Ingurune hurbila: txikiak direnetik euskara asko entzuteko eta erabiltzeko aukera izatea etxean, ingurukoekin, kalean... |
| Bakoitzaren jarrerak: euskararen aldeko jarrera garatzea. |
| Hizkuntza-gaitasuna: egoera eta erregistro ezberdinetarako hizkera egokia eta aberatsa izatea. Lagunarteko harremanei begira, bereziki gazte hizkeran nahiko baliabideak izatea. |
| Identitate kolektiboa: norbera ibiltzen den giro eta taldeetan euskararen aldeko jarrerak ikustea, euskara asko erabiltzen den gune edo jardueretan nor bere burua eroso ikustea... |
| Harreman sareetako hizkuntza-arauak: norbera ibiltzen den harreman sareetan euskarak leku handia izatea, euskararen erabilera zaintzen dela ikustea, hizkuntza-arauen oinarrian zer dagoen konturatzea, eta abar. |
| Pertsona eta talde erreferenteak: euskarazko erreferente asko izatea, bai pertsonai ezagunak (musikariak, kirolariak...) baita gertukoak ere (helduagoak diren herriko gazteak, hezitzaileak...). |
| Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: euskara balio indartsu eta erakargarriekin ere lotzea (modernoak, indartsuak, etorkizunekoak...). |
| Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa: euskara eskolarekin soilik ez lotzea, inguruan gero eta euskaldun gehiago dituztela ohartzea, euskara leku eta egoera askotan erabil daitekeela eta gero eta gehiago erabiltzen dela ohartzea... |
| Kontsumo eskaintza: produktu eta zerbitzuak euskaraz eskura izatea (musika, bideo jokoak, eskola orduz kanpoko jarduerak, aldizkariak...). |
| Input mediaticoak: komunikabideetatik jasotzen dituzten mezuak euskarari dagokionez egokiak edo desegokiak izatea. |
| Testuinguru politikoa: legeak euskara biziberritzeko eraginkorrak izatea eta testuinguru horietatik jasotzen ditugun mezuak egokiak izatea (talde politikoen aldetik, adibidez): |

Euskararen normalizazioan urrats handiak eman diren arren, gizarteko hizkuntza nagusia gaztelania da eta horrek eragina du gazteen hizkuntza-ohituretan. Hau da: txikiak direnetik hainbat faktore ari dira beraiengan eragiten eta horrek ondorio batzuk ditu. Beste modu batera esanda: sozializazio prozesu batean daude eta hizkuntza-sozializazio jakin bat ematen da. Euskara ulertzea eta erabiltzeko gai izatea oinarritzkoa da hizkuntza-ohiturei begira, baina hizkuntza batera edo bestera jo ez da soilik aukera kontua, askoz konplexuagoa da. Are gehiago, euskararekiko jarreraren oinarrian ere faktore horiek daudela esan daiteke.

Norabide honetatik abiatuz: hizkuntza-sozializazioan ematen diren faktoreak aztertu daitezke nerabeekin, ahalduntze lana egin daiteke euskaraz gehiago egin nahi dutenek horretarako baliabideak izan ditzaten, eta euskara gehiago erabiltzeko jarrera ez dutenekin ere errespetuzko jokabideak landu daitezke erraztaile izan daitezzen. Horretaz gain, euskara balio indartsuekin lotu dezaten lan egin daiteke, hizkera informalean baliabideak eskaini, egoera soziolinguistikoaren inguruko oinarriak eman eta abar.

Irizpideak

Nerabeek euskararekin duten harremana abiapuntu:

Testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuz, herrietan euskararekin harreman ezberdina duten nerabeak aurkitu ditzakegu.

- Euskara gertu dutenak: euskaldun izatea eta euskara erabiltzea lotuta ikusten dituzte (kontraesanak edo zailtasunak egon daitezkeen arren). Badute euskaraz aritzeko erraztasuna eta badituzte euskarazko harremanak.
- Euskara nahiko gertu dutenak: euskara bada beraien identitatearen parte baina ez oso sakonekoa. Erdaraz erosoago sentitzen da gehiengoak, baina egoeraren arabera hizkuntza bat edo beste erabiltzeko gai dira.
- Euskara nahiko urrun dutenak: euskaraz ikasten ari dira baina ikastetxetik kanpo euskararekiko harremana ahula da. Ez dute erraztasunik euskaraz aritzeko eta haien harreman ia guztiak gaztelaniaz dira.

Banaketa ez da zehatza eta orain arteko esperientziatik eta ikerketa batetik ateratako ondorio bat da, baina proiektuaren garapenean, jarduerak lantzerakoan eta mezuak zehazterakoan oso kontuan izan behar da. Batzuekin eta besteekin egin beharreko lana eta eman beharreko mezuak ezberdinak dira, eta hizkuntza-ohiturei dagokionez, helburuak ere ez dira berdinak. Testuinguru soziolinguistikoaren arabera

multzo batean edo bestean nerabe gehiago egongo dira, eta horrek eragina du helburuetan eta lehentasuna jarri beharreko programetan.

Koherentzia eta malgutasuna:

Ondo oinarritutako proiektu bat lantzeko ahalegina egin behar da: helburu argiekin, norabide jakin batean, jarduera zehatzekin eta abar. Atal ezberdinak dituen proiektua izan daiteke eta horien artean lotura izatea eta lotura horiek argiak izatea bilatu behar da.

Baina, bestalde, malgutasuna eskatuko duen proiektua da. Proiektuko zenbait atal ikasleen parte hartzera baldintzatuta egon daitezke (gazte eragileen batzordeak, adibidez) eta gerta daiteke proiektuan aurreikusitakoa ezin bete ahal izatea uneren batean. Bestaldera ere, gerta daiteke une batzuetan atal edo jarduera batzuei baliabide gehiago eskaintzea beharrezkoa ikustea horrek proiektuaren eragina areagotu dezakeelako.

Intentsiboa eta estentsiboa:

Proiektuko jarduera batzuk izaera estentsiboa izan dezakete: haur eta nerabe guztiei begirakoak dira. Beste jarduera batzuk, berriz, izaera intentsiboa izan dezakete: ikasle batzuekin lan egin nahi da baina eragin handiagoa lortu nahi da.

Bi ikuspegien arteko oreka bat bilatzeko ahalegina ere bilatu daiteke: jarduera guztietan ikasle guztiengan eragiteko ikuspegia hartuz gero, baliabide asko erabilia lorpen gutxi izateko arriskua izan dezake. Gainera, ikasle batzuekin ondo lan egiten bada hauek eragin handia izan dezakete besteengan. Baina, bestalde, ahalegin guztia ikasle batzuekin lan egitera begira jartzen bada, hainbat gazteekin ez litzateke ezer landuko.

Herriko eragileekin elkarlana:

Aukera dagoen herrietan herriko eragileen arteko elkarlana zaintzea eta sustatzea oso garrantzitsua da. Hau da: udala, ikastetxeak eta nerabeekin lan egiten duten beste erakundeak. Programen arteko lotura bermatu nahi bada, elkarlan hori beharko da.

Adibidez: herrian gaztelekua baldin badago, gazteleku horren proiektuarekin lotzea oso interesgarria da, eta espazioa erabiltzeko eta ekimenak bertan ere egin ahal izateko aukera izatea.

Guzti honekin lotuta garrantzia berezia du Euskara Elkarteak: elkarteak dauden eta nerabeekin lanean aritzeko prest dauden lekuetan, beraien inplikazioa bilatzea oso interesgarria da. Ikastetxeetatik herrira zubilana egiteko eta, beraz, hizkuntza-sozialazioan eragiteko kideak dira.

Programa adibideak

- Sentsibilizazio saioak
- Ikasle eragileen batzordeak edota kultur dinamizatzaileen batzordeak
- Nerabeen Euskaraldia eta Ahobizi jarduerak
- Babesguneak: erabilera bermatzeko eta bizipenak eskaintzeko programak
- Euskara indartzeko programak

Sentsibilizazio saioak:

Soziolinguistikako zenbait oinarritatik abiatuz nerabeekin hizkuntza-ohiturei buruz eta euskararen erabilerari buruz aritzeko saioak. Landu daitezke, besteak beste:

- Hizkuntza-ohiturak eta hizkuntza-arauak
- Bizipenak eta hizkuntzekin harremana
- Identitate kolektiboa
- Hizkuntza-gaitasuna
- ...

Saio puntualak izan daitezke edo epe batean zehar egiten diren saio sorta. Ikasturte batean jarri daiteke arreta edo Bigarren Hezkuntzako osorako plangintza bat egin. Normalean ikuspegi estentsiboa duten programak izaten dira: nerabe guztiei eskaintzen zaizkie.

Ikasle eragileen batzordea edota Kultur dinamizatzaileen batzordeak:

Euskararekiko jarrera aktiboa izateko prest daudenei protagonismoa eman nahi zaie eta eragile izan daitezen bideratu. Gustura ari badira beraiengan eragina izango du (talde sentituko dira eta protagonismoa ere izango dute) eta inguruko hainbatengan ere eragin dezakete.

Ikasturte osoko programak izan daitezke edo une zehatz bati lotutako ekimenak. Adibidez: Nerabeen Euskaraldi bat antolatzea.

Zuzenean hizkuntza-ohituretan eragitea baino zeharkako lana ere egin dezakete gazte eragileen batzordeek. Adibidez, kultur dinamizatzaileen batzordea izan daiteke. Kasu honetan hizkuntza zehar-lerro bat izango da, ekimena aurrera eramateko tresna. Arreta, aldiz, kultur ekimen edo proiektu batean jarriko da.

Horrelako batzordeek laguntza behar izaten dute eta dinamizatzaile bat jartzea beharrezkoa izaten da. Dinamizatzaile hori irakaslea ez den herriko gazte bat izatea komeni da, hau da, beraientzat erreferente izan daitekeen norbait.

Nerabeen Euskaraldia eta Ahobizi jarduerak:

Bi urtez behin Euskaraldia egiten da. 16 urtetik gorakoei begirakoa da eta, ekimenaren ezaugarriak kontuan hartuta, hori egokia da. Baina DBHkoen ezaugarrietara ere egokitu daiteke eta Euskaraldiaren testuingurua erabili gazteen hizkuntza-ohituretan eragiteko. Horren inguruko ikerketa egin zen Lasarte-Orian 2018an: "Nerabeen Euskaraldia Oriarte institutuan". Ebetetik gidatu genuen ikerketa hori.

Bi urtez behin Nerabeen Euskaraldiak egin daitezke, baina horretaz gain beste Ahobizi jarduera batzuk ere antolatu daitezke ikasturtean zehar edo Euskaraldirik ez dagoen ikasturteetan.

Babesguneak, erabilera bermatzeko eta bizipenak eskaintzeko programak:

Euskara balio eta egoera erakargarriekin lotu dezaten euskaraz aritzeko gune babestu eta gustukoak eskaintzea da modu honetako programen helburua. Adibidez: Aisikasi egitasmo (Donostiako Udala) egitasmoa hleburu horrekin sortutakoa da. Aisialdiko jarduera bat da, euskararekin harremana indartzea eta euskara erabiltzea helburu duena.

Euskara erabiltzeko aukera eskaintzen bazaie eta hori bizipen eta sentazio positiboekin lotzen badute, horrek eragin zuzena izango du beraien jarreretan. Hizkuntza-ohiturei begira ere eragina izan dezake, edota beraiek eragile izateko prest ere agertu daitezke hemendik abiatuta.

Euskara indartzeko programak:

Nerabe askok euskara maila oso ona dute ulermenari dagokionez, baina ahozko komunikazioari dagokionez muga asko dituzte. Euskararen erabilera eta hizkuntza-ohiturak sustatzera begira beharrezkoa izan daiteke ahozkoa lantzeko eta euskara gaitasuna indartzeko programak eskaintzea.

Kontuan izatekoak:

- Testuinguruaren eta baliabideen arabera programa batzuei edo beste batzuei lehentasuna eman beharko zaie. Programen arteko lotura ere bilatu daiteke.
- Udalerrietan beste hainbat jarduera ere egiten dira ikuspegi honekin bat egiten dutenak: nerabeentzako lehiaketak eta abar. Horiek ere ikuspegi honekin lotu daitezke.
- Nerabeentzat herian eskaintzen diren beste jarduerak ere eragin handia dute: kirola, musika, eta abar. Hau da: kirol jarduerak euskaraz egiteak eragin zuzena du hizkuntza-sozializazioan.
- Hemen agertzen ez diren eta berriak izan daitezkeen programak ere sortu daitezke.

Aholkularitza eskaintza *Hizkuntza-sozializazioan laguntzera begira*

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik *Hizkuntza-sozializazioan laguntzen* deituriko norabide honetan urratsak emateko aholkularitza eskaintzen dugu. Horri begira, abiapuntua toki bakoitzeko egoera soziolinguistikoa ezagutzea izaten da eta haur eta nerabeen hizkuntza-ohituretan eragitera begira zein jarduera egiten diren eta zein diren eragileak.

Hortik abiatuz, eragileen arteko elkarlana bilatzen da jarduerak egokitu edo jarudera berriak sortzeko. Bide horretan aholkularitza eta dinamizazioa eskaintzen dugu.